

**AURTENGO URTEA:
PAULO ZAMARRIPAREN BERTSO-SORTA
BATEN BI BERTSIO**

Sarrera

Euskal letretan Paulo Zamarripa (1877-1950) ezaguna da batez ere bere *Gramatica Vasca* arrakastatsuagatik (dozena erditik gora edizio izan zituen eta hizkuntzaren aproximazio zentzuzko bat ematen zuen gerra aurreko Bizkaiko giro purista-garbizalean) eta bere *Manual del Vascófico* liburuagatik, oraintsu berregitaratua, zeinean biltzen baitira hainbat eta hainbat adierazpide, lokuzio eta espresamolde. Horietatik asko, eta jasotako bokabularioarekin batera, Azkueren hiztegian jasota daude.

Baina Zamarripak, idazle oparoa ez bazen ere, baditu hain hor sakabanatuta hainbat idatzi, gehienak, denak ez badira, testu laburrak edo bertso-sortak direnak.

Hasi zen publikatzen Azkuek sortutako *Euskalzale* eta *Ibaizabal* aldizkarietan, eta horiek zarratu zirenean, beste hainbat tokitan segitu zuen. Toki horien artean, nabaritu behar da Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkari katoliko, kontserbadore eta monarkikoa, 1901 eta 1984 artean argitaratu zena, eta Zamarriparen ideia integristen hurbil zegoena.

Egunkari batean idazten dena efimeroa da, hots, ibilbide laburreko izkribuak dira, eta hori berori betetzen zen ere pasatu den mendeko egunkarietan agertzen zenarekin: idatzitakoak oso ibilbide motzekoak ziren. Zamarripa, noski, horretaz jabetuta zegoen, eta egunkarian –eta beste hainbat tokitan– atera-

takoak ahaztu edo eta galdu zirelakoaren beldur, bere aportazio intesgarriekin hiruzpalau liburu argitaratu zituen.

Horiek horrela, *La Gaceta del Norte* egunkarian, 1911ko urtarrilaren 1ean *Aurtengo Urtea* izeneko bertso-sorta atera zuen, urte berriaren kariaz, eta atera ere 1926an berritera *Zaparradak eta* tituludun liburuan, baina oraingo honek bertso-sortaren bigarren atal osoa ments du.

Zergatik egin zuen hori Zamarripak? Gaur gaurkoz ezin esan, baina ideia batzuk pausa daitezke. Alde batetik 1911ko egoera soziala eta 1926koa guztiz desberdinak ziren. Bertso-sorta *La Gaceta del Norte* egunkarian argitaratu zenean, Espainian mugimendu politiko-sozialak bor-bor zeuden eta liburua argitaratzean, ostera, Primo de Riveraren diktadura –eta zentsura– bete-betean pairatzen ziren. Beste alde batetik, liburuaren helburua ez zen horrenbeste posizio politiko bat aurkeztea ezpada euskaldunei irakurgai xaloak bideratzea: horrela dio liburuaren azalak: “*Zaparradak eta. Euskalzaleen atsegiñerako Zamarripa abadeak egindako lan alayak*”. Duda barik, eta konturatuko zaretenez, *Aurtengo urtean* bertso-sortaren bigarren parteak ez du betetzen azalean agertzen den helburu hori.

Sarrera hau bukatzeko, pare bat puntu erabiltzen den hizkeraren gainean. Zamarripak irakurletzat nahi du garaiko Bizkaiko euskaldungo zabala, hots, hein handi batean nekazaria eta gutxi formatua zena. Haren idazteko modua, gaur –eta *mutatis mutandis*–, *euskara erraza* moduan kalifikatzen denaren hur legoke. Ez du behar azalpen-oharrik, salbu eta garaiko eta tokiko zehaztasun batzuk argitzeko. Bestalde, euskararen formaren aldetik, esan daiteke Zamarripa, ia-ia beti, Azkueren idazteko formaren hurbilekoa zela, eta alde horretatik, gaurko idazteko konbentzioetatik hurbil egonik, ez du aparteko zailtasunik. Aipatzea merezi du nola grafia aldatuz doan 1911tik 1926ra; adibide bat aipatzearen: euzkal (1911) – euskal (1926). Edozelan ere, hemen, *Aurtengo urtea* bertso-

sorta ematerakoan, ez da inolako gaurkotze-lanik egin, akats ebidenteak artezteaz kanpo.

Aurtengo urtea

In Zaparradea. XVI. Zaparradak eta. 94-95 or. Emeterio Verdes, Bilbo (1926)

Milla bederatzireun
 ta amaikagarrena,
 ona bada, ezta izango
 urterik txarrena.
 Irureun ta irurogei
 ta bost egun ditu;
 ta onetan, igazkoaz
 egongo da kitu.
 Izango ei ditu gaubak
 eguzki bakoak;
 ta au ezta on ona baña,
 era onetakoak
 izan dira oin-arteko
 urterik geyenak,
 esan deustenez gizon
 buruz argienak.
 Euririk ezta izango
 aterri danean,
 ta otzik ezta bearko
 otz dagoanean.
 Gauz on guztiok eta
 beste asko, gazteak,
 ei dakazkuz beragaz
 gaur aurtengo urteak.
 Beintzat, aurten gizonak

eztira atsotuko;
ta andrak zar ingo dira,
aguretu-orduko.
Ba urte au da olangoa
Euskal-erri-aldean;
ta Euskal-errian legez,
mundu zabalean.

Aurtengo urtea

In La Gaceta del Norte, 1911-01-01; 4, or.

Milla bederatzireun
ta amaikagarrena,
ona bada, ezta izango
urterik charrena.
Irureun ta irurogei
ta bost egun ditu,
ta onetan igazkoaz
egongo da kitu.
Izango ei ditu gabak
eguzki bakoak;
ta au ezta on ona, baiña
era onetakoak
izan dira oin-arte
urterik geyenak,
esan deustenez gizon
buruz argienak.
Euririk ezta izango,
aterri danean;
ta otzik ezta bearko,
otz dagoanean.
Gauz on guztiok eta

beste asko, gazteak,
ei dakaz ba beragaz
gaur aurtengo urteak.
Beintzat aurten gizonak
eztira atsotuko,
ta andrak zar eingo dira
aguretu-orduko.
Ba urte au da olangoa
euzkal-erri-aldean,
ta erdalerrian legez,
mundu zabalean.

- - -

Españan, ikusirik
Lerroux ta lagunak
praillok emen daukezan
aberastasunak,
praille sartuko dira
aurten. ¡Ain ziertu!...
Sinistu gura ezpozu,
ezeizu sinistu.

- - -

Emazteagaitik ze,
Canalejas bere,
urte onetan izan da
sartuteko praille.

- - -

Azzatik be badauka
praille izan gurea;
ta orain... egiaz, ezta

au gure ardurea...
baiña lege barriak
ez deutsalala ichiten
conventu españarretan
praille lez bizitzen,
ta Italiara ei doa
gaurtik biarrera,
an jesusitak dauken
conventu batera.

- - -

Morotok pra(i)lle nora
yoakun eztiño:
baiña aurki joango da
praille *agustiño*.

- - -

Sorianok bere praille
gura leuke joan,
norbaiti “España Nueva”
saldu ta beingoan.
Lotsea beste, surra
azi badakio,
Martirako, Zarauzen
leku egin lekio.

- - -

Romanones yabilko
Merinori esaten
jesusitak errenik
artzen ete daben.

- - -

Iglesias Paulo doa
praille dominiku,
baiña ez izatekotan
iñoiz apezpiku.
Azpiko dabillena
ei dabil seguru
ta eztau gura izan berak
ezelan be buru.
Aita Paulo entzutea
naikoa da ondrarik,
jta kontu –diño beti–
niri ez ein besterik!

- - -

Iglesias Emiliano
elexa-zalea,
abadetzat Ferrandiz
baiño bere ohea,
Lerrouxen diruaga(z)
egingo da abade,
prailleak eragotzi
eiten ezpadabe.

- - -

Milla bederatzireun
ta amaikagarrenena,
ona bada, ezta izango
urterik charrena.

Paulo Zamarripa ta Uraga

Gehigarria

Aurtengo urtean azaltzen diren politikarien aipua. Politika-
rion egoerak 1910 ingurukoak dira, hots, bertso-sorta *La Ga-
ceta del Nortén* argitaratu zenean. Datuak euskarazko Wikipe-
diatik hartuak izan dira, eta hor agertzen ez direnak gaztela-
niazkotik. Kontsulta eguna, 2018-12-18a.

Lerroux, Alejandro (1864-1949). 1911an, Espainiako Gor-
teetan diputatua. Aurretik, 1908an, Partido Republicano Radica-
l alderdia sortu zuen.

Canalejas, José (1854-1912). Alderdi liberaleko kidea eta
1910etik 1912ra, eraila izan arte, Ministroen Kontseiluko Presi-
dentea. Elizaren aurkako politika eraman zuen.

Azzati, Félix (1874-1929). Kazetari (*El Pueblo*ko zuzendaria)
eta politikari (Valentziatik diputatua) antiklerikal eta errepu-
blikazalea.

Moroto (?) agian, Morote, Luis (1864-1913). Idazle, kazetari
eta politikaria, diputatua, Canalejas-en hurbilekoa, antiklerika-
la eta autonomista.

Soriano, Rodrigo (1868-1944). Donostiarra, Zarautzen erro-
tutako jauntxoen familia batekoa, *España Nueva* kazetaren
sortzailea. Antimonarkikoa, Partido Republicano Radicaleko
kidea.

Romanones, kondea (Figueroa, Alvaro) (1853-1950). Poli-
tikaria, alderdi liberalekoa. Espainiako Diputatuen kongresuko
presidentea. Ume-denboran izandako ezbehar batez herren
geratu zen.

Merino abizendun bi pertsonaia daude: Baltasar Merino
(1845-1917). Jesuita eta botaniko famatua, eta Fernando Meri-
no (1860-1929). Politikari liberala, 1910ean Gobernazio-minis-
troia izan zena. Ez dakigu Zamarripak zeini egiten dion errefe-
rentzia.

Iglesias, Pablo (1850-1925). UGT sindikatuaren eta PSOE alderdiaren sortzailea eta lehen diputatua 1910ean. Langilegoen aldekoa eta errepublikanoa.

Iglesias, Emiliano (1878-1941). Politikaria, Lerroux-ekin alderdi erradikalaren kosortzailea. *El Progreso* kazeta erradikalaren zuzendaria.

Ferrándiz, José (1853-1927). Apaiza, periodista, idazle eta, pseudonimoak erabiliz, idazle antiklerikala.

Eskerrak

Egindako irakurketagatik, eta emandako iradokizunengatik, Kepa Altonaga eta Iñaki Sarriugarte lagunei eskerrak eman behar dizkiet, eta eman nahi dizkiet.

Jacinto Iturbe